

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

BERRI PAPERA



AMAIA ZENTROA
Benito Perez Galdos Z/G
01002 Gasteiz
Araba
E.: araba@bertsozale.eus
T.: 945 01 05 05
www.bertsozale.eus/araba



Arabako XXI. Bertsolari gazteen Eskolarteko finala

Uxue Diaz de Cerio

Maiatzaren 21ean, Arabako bertsolari gaztetxoek Aramaion Bertso Eskolen eguna eta XXI. Arabako Eskolartekoa ospatuko dute. Bertako Kultur Etxean, 11etan izango da eguneko lehen zita. Lehenik final honetan bat-bateko lehian arituko ez diren txanda izango da, bertso sorta jarriak edota bat bateko ariketa motzak kantatuz. Bigarren txanpan oholtzara igoko direnak bat batean arituko diren 14 eta 18 urte bitarteko 6 gazteak, Aroa Arrizubieta, Markel Yoyer, Martin Abarrategi, Peru Amorrortu, Unai Anda eta Xabier Antia. Sei finalista hauek, apirilaren 16an, Otazako Garai on kultur gune/sorgingunean lehiatu zen kanporaketan finalerako txartela lortu zuten bertsolariak dira. Leku paregabean asteburu pasa ederra egiteko parada izan zuten gero.

Euretako bik izango dute aukera ekainaren 4an, Ereñozun, ospatuko den Euskal Herriko Eskolarteko finalean kantatzeko aukera. Aurtengoan gainera, egun benetan berezia izango da, Ereñoztarra zen Txirrita handia hil zela 80 urte pasa baitira eta egun horietan herrian ospakizun ezberdinak burutuko baitira, tartean noski Eskolartekoa.

Aramaiora itzuliz, eguna ez da bertan amaituko eta herriko trikitilaririk jatorrenekin batera herrian zehar,

zokorik zoko bertso poteoan murgilduko dira parte hartu nahi duen orok. Bazkarirako tripa orroek deia egitean San Martin Eskolako jantokira bisita izango da. Bazkariko menu goxoa probatu nahi duenak maiatzaren 17a baino lehen eman beharko du izena araba@bertsozale.eus emailera mezu bat bidaliz edota 688616531 telefonora deituz, SMS bat bidaliz edota watsap mezu bat igorritz. Garaiz ibili eta ez geratu bazkaririk gabe!


Eta tradizioari eutsirik, bazkalostean digestioa hobeto egiteko... herri olinpiadak izango ditugu.

Ez galdu Euskal Herriko Eskolarteko finalera zein saguzar pasako den jakiteko aukera! Bertsoek garai dezatela Aramaion!!



KOPLA

Eskolarteko finala dator gure gazteak jo ta su, Txirrita ere etorriko zen, nola ez zatozela zu?



Argitalpenaren
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



Eskolarteko topaketak

Araba bertso doinuz janztera goaz!

Uxue Diaz de Cerio

Udaberriko loreak bezala Eskolartekoko topaketak loratzen joango dira maiatza eta ekainean zehar, kolore eta usain ezberdinetakoak, zelai ezberdinetan eta bailara ezberdinetan sortuak. Aurtengoan, 14tik beherakoen arteko 9 topaketa burutuko dira Araba osoan zehar. Hezkuntza arautuan ikasturte osoan bertsogintza lantzen ari diren gaztetxoek egun honetarako espresuki egindako bertso sortak kantatuko dituzte ikasgelaka eta Bertso Eskola den herri edota ikastetxeetan, bertako ikasleek sorta jarriak edota neurriko bat-bateko ariketak burutuko dituzte. Gainera lekuan leku bertso paper lehiaketa ere egingo da.

Maiatzak 6, Ikaspilotaren jaiarekin batera, arratsalde partean Legutioko kiroldegian Gorbeialdeko ikastetxe denak elkartuko dira eta besteak beste

klasean prestatutako bertsoak kantatuko dituzte.

Maiatzaren 13an, 14:15ean, Aramaioko Kultur Etxean burutuko da topaketa eskolako eta Bertso Eskolako gaztetxoek prestatutako sortan eta inprobisatutako bertsoak kantatuko dituzte.

Mendialdean, maiatzaren 20an, 19:30ean, Kanpezuko Kultur Etxean elkartuko dira Ibernalo eta Maeztuko ikasleak Mendialdeko Bertso Eskolako ikasleekin batera

Euskararen Kultur Astearen baitan, Bastida Ikastolako, Lantziegoko Eskolako, San Bizente Ikastolako eta Assa Ikastolako ikasleak batuko dira maiatzaren 22an, Lantziegoko Kultur Etxean 12etan.

Legutioko Kultur Etxean Garazi Ikastetxe ikasleak eta Bertso Eskolan dabiltzan

gaztetxoak elkartuko dira maiatzaren amaieran.

Laudioarrak, ekainaren 6an, Lanbide Heziketako Aretoan elkartuko dira goizaldeko 10etan eta Amurriko antzokian egingo dute topaketa amurriarrek ekainaren 5ean.

Ekainaren 16an, Gasteizko Armentia Ikastolan, bertako hezkuntza arautuko ikasleak eta bertako Bertxilika Bertso Eskolako ikasleak kantuan elkartuko dira. Eta ekainean baita ere, arabar lautadako Araia Eskola, Dulantzi Eskola, Lope de Larrea ikastetxea eta Lautada Ikastola elkartuko dira Aguraingo eta Zalduondoko Bertso Eskolako kideekin batera Aguraingo Harresi aretoan.

Beraz, Araba bertso doinuz janztera goaz!

Bi bertso barnetegi

Iñaki Viñaspre

Martxoaren 29, 30 eta 31n bertso barnetegiak burutu genituen. Bi barnetegi aldi brean bai, ez da gutxi. Espejon Aiaraldeko 69 haur batu genituen eta Manurgan Gorbeialdeko 38 ume bertsoaren aitzakipean.

Bertan abestiak eta bertsoak egin eta gozatzeaz gain, jolasak, postregintza... denetik egin genuen. Denbora librean ere ez zen egitekorik falta... futbolina, igela, kolunpioak, futbola, pultserak.....

Ederki pasa genuen, pena bazara soilik hiru egun pasa izana.... Ea hurrengo urtean!!



Bapateroak bertso-eskola

Kristoren ondorengo 2008 urtean aramaiotarrek Araba osoa hartu zuten. Osorik? Ez! Gasteizko inguruetan bizkaitar kanpamenduz inguratutako Amaia Zentro txiki batek aurre egiten baitio erasotzaileari. Bertsoeskolixka honetako bizilagunek... bueno... beharrezkoa al da aurkeztea? Ba al da oholtzan ezagutzen ez dituenik? Bueno... ederki, ederki... aurkezpenak egingo ditugu ba.

Jon Santxuranzeturix, bertsoeskolixkako koblaria. Euria non? Jon hor. Unai Argoterix ospetsua, inork ezagutzen ez dituen doinuen jakituna. Gure aurkikuntza berria: Xabier Antifix, nor bertsoeskola konpondu nahian, bertso-frikismoan murgildu zen konturatu gabe. Iñaki Tenurix, atzerrira bidalia, gugana heldutako informazioaren arabera bertsoeskola berri bat montatu omen du Mexikon. Azkenik, Maddalen Bostezix, beti berandu iritsi arren, besteekin sartzeko prest datorrena.

Baina nolatan eutsi dio bertsoeskolixka txiki honek gerlari gutxi batzuekin bertsonaje erasotzaile boteretsuari? Honen erantzuna Pereanoramix sorgin trebeak prestatzen duen bertso-edabe magikoan datza. Edabea hartzen duena menderaezin bilakatzen baitu. Manus César Agirre eta bere armada garaitzeko ere gai gara edabe horrekin!

Gutxinaka indartuz joan gara, izan ditugun irakasleen laguntzarekin. Pereanoramixekin lehenengo pausoak eman genituen, nahiz eta errimatzen ikasi baino, mainontzian jolasten ikasi genuen! Baina bere afinazioa behintzat gurekin geratu zen. Ondoren, Ekaitz Samaniegix bihurtu zen bertsoeskolixkaren buruzagi; bertsoan urteak zeramatzen bertsolari gazteak kontrolatzeaz gain, Argoterix berriari irakatsi behar izan ziona. Viñasbelix



sartu zen jarraian (ikusten duzuen bezala, bertsolari guztiek nahi zuten gure bertsoeskolixkaren buru izan), bere zorrotasunak asko lagundu zigun hobetzen, baina... ikasleak irakaslea gainditzen du noizbait, eta bota behar izan genuen, ez baitzuen behar adinako mailarik.

Denbora luze batez autodidaktalez jardun genuen bertsoeskolixkan, zenbait bertsonaje joan eta etorri egin ziren orduan, eta hortik jaio zen Arabarron inbidia: BAPATEROAK ("bapatean egiten duten patata eroak", edo... horrelako zerbait...).

Arabako Kuadrilla Artekoan Bapateroak izenpean parte hartu genuen lehenengo aldia izan zen garai hori. Legutioko bertsoeskolixkarekin eta Mendialdeako bertsolari "txikiekin" aritu ginen kantari (oso gustora, gainera).

Hurrengo urtean Antifix bertso-frikia fitxatu genuen gure bertsoeskolixkan. Bapatero berria, baina betiko metodoa: errima zailak, doinu entzungabeak (eta entzunezinak), hankaluzeak, hankamotzak, Argoterixen gai aldrebesak, Santxuranzeturixen afinazioa, Tenurixen ausentzia, Bostezixen moteltasuna... eta, orain, Antifixen pototasuna.

Orduan, ezer hobetu ezin zitekeela uste genuenean... Pereanoramixen itzulera! Akelarrearen su goxoak besarkatu gintuen, eta, egun, bertso-edabe magikoarekin mozkortzen gara.

Mozkorrak darrai, patatak ere bai.

Hurrengo Berri Paperean Arabar Errioxako Txandrio bertso-eskolaren artikulua.

AGENDA!

Maiatzak 13 LEGUTIO	OHOLTZA- PETIK	OHOLTZAPETIK entzulea epaile FINALA Kultur etxean, 20:30 Izar Mendiguren, Oihane Perea, Manex Agirre, Serapio Lopez Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkartea
Maiatzak 14 Baxauri	BERTSO BAZKARIA	Basauri herriko taberna, 15:30 Iñaki Viñaspre, Felipe Zelaieta Antolatzailea: Ega Garaiko mintalagun taldea
Maiatzak 17 GASTEIZ	BERTSO PILOTA	Adurtzako frontoian, 17:30 Peru Amorrortu, Aroa Arrizubieta, Aitor Najera Antolatzaileak: Adurtza pilota eskola
Maiatzak 20 LANTZIEGO	BERTSO POTEOA	Herriko kaleetatik, 20:00 Orlando Arreitunandia, Unai Bengoetxea, Iker Olabarrieta Antolatzailea: Ttiki-Ttaka Errioxako Euskaldun Elkartea
Maiatzak 21 ARAMAIO	ESKOLAR- TEKOA	Kultur etxean, 11:00 Arabako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Finala eta Bertso-eskolen Eguna Antolatzailea: Arabako Bertsozale Elkartea, Ikastolen Elkartea
Maiatzak 21 AMURRIO	BERTSO AFARIA	Gaztetxean, 21:00 Iñaki Viñaspre, Miren Amuriza Antolatzaileak: Amurrioko Gazte Asanblada
Maiatzak 21 ARAMAIO	BERTSO SAIOA	Kultur etxean, 20:00 Paula Amilburu, Jokin Labayen, Aitor Sarriegi, Iñaki Murua Gai-jartzailea: Manex Agirre Antolatzailea: Erain Debagoiena
Maiatzak 27 LEGUTIO	EMANALDI BEREZIA	Plaza, 19:00 "Bat-batean": Oskar Estanga, Jon Martin Antolatzaileak: Legutioko Udala
Ekainak 2 LAUDIO	BERTSO POTEOA	Enparantzatik hasita, 20:30 Izar Mendiguren, Onintza Enbeita Antolatzaileak: Aiaraldeko Berbalagunak
Ekainak 4 URIBARRI GANBOA	BERTSO SAIOA	Uribarri-Ganboa, 17:30 Xabi Igoa, Iñaki Viñaspre Antolatzaileak: Amurrioko Gazte Asanblada

ZERNAHI

Berrikuntza =
M + B + tx + Z



Xabi Igoa

Mundu osoko korporazioa handienetan hamaika formula, ariketa eta dinamika jartzen dituzte martxan haien berrikuntza taldeetan sorkuntza prozesuak areagotzeko. Google-en ping-pong mahaiak dira nagusi, Apple-en sofak dituzte, Mercedes-en dirutza bat kobratzen duen aditua ekartzen dute...

Arabian, urte askoren lanaren ondorioz, formula zehatz eta bereizgarri bat lortu dugu:

M + B + tx + Z

Non:

M: Marianitoa azeitunarekin

B: Bertsoak (eta kuadrillan bada, hobe)

tx: txapela (ahal dela argazkiko neska duen koloreetako)

Z: Zirriak (gero eta zerriagoak, efektiboagoa da)

Probatu ez duenak, ez daki zer den hau! (edo ez du nahi jakin)